## Kudeaketari buruzko txostena
## *Informe Gestión*

**MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES***

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

Krisi ekonomikoaren ondorioak gorabehera, Euskalduna jauregiak *cash flow* positiboa zuela itxi zuen 2014ko ekitaldia, hau da, inauguratu zenetik jauregiak jardun duen ekitaldi guztietan bezala. Hori dela eta, joan den ekitaldian ere ez zen ustiapeneko diru-laguntzarik erabili behar izan.

Euskalduna Jauregia cierra el ejercicio 2014, año condicionado por los efectos de la crisis económica, con un cash flow positivo al igual que el resto de los ejercicios habidos desde su inauguración, lo que ha hecho innecesarias, un año más, la utilización de subvenciones de explotación.

2014ko ekitaldiko okupazio-indizea urteko egun guztien %91koa izen zen. Okupazio-indize horrez gain, bertan izan ziren biltzarrak eta bilerak (450), ekitaldiak (352) eta jauregira etorritakoen kopurua (567.198) aintzat hartuta, 2014. urtean ezarritako helburuak lortu ditugu eta, beraz, Espainiako estatuko biltzar jauregietan dugun maila pribilegiatuari eutsi diogu.

En el año 2014 se ha alcanzado una ocupación del 91% de los días del año.  Este índice de ocupación, unido al número de congresos y reuniones 450, las 352 representaciones los 567.198 asistentes nos ha posibilitado alcanzar los objetivos marcados para el año 2014 y  nos ha permitido mantener nuestra privilegiada posición en el  ranking de Palacios de Congresos del Estado español.

2014. urtean, 802 ekitaldi eta emankizun gauzatu ziren guztira Euskalduna jauregiko instalazioen barruan.

En las instalaciones de Euskaduna se realizaron a lo largo de 2014 un total de 802 eventos y representaciones.

Bestetik, ekitaldi horretan ere kalitatearen konpromisoari eutsi genion eta, besteak beste, ondoko egiaztapenak berritu genituen: ISO 9001:2008 Kalitatearen Kudeaketa, ISO 14001/2004 Ingurumenaren Kudeaketa eta LEED Ingurumen Egiaztagiria U.S. Green Building Council erakundearen beharkizunei jarraiki, OHSAS 18001/2007 Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa, Irisgarritasun Unibertsalaren Kudeaketa DALCO UNE 170001-2 arauari jarraiki eta Biltzar Jauregien Turismo Kalitatearena, UNE 187004/2008 arauari jarraiki.

Durante el ejercicio, y como continuación de la apuesta por la calidad,  Euskalduna ha renovado las certificaciones de Gestión de Calidad ISO 9001:2008, Gestión Medioambiental ISO 14001/2004, así como el Certificado Medioambiental LEED según el   U.S. Green Building Council,  Gestión de Seguridad y Salud en el trabajo OHSAS 18001/2007, Gestión de la Accebilidad Universal segun normas DALCO UNE 170001-2 y de Calidad Turística de Palacios de Congresos UNE 187004/2008.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu Euskalduna Jauregia lehen mailako erreferentziazko gunea dela mota askotako biltzarrak eta bilerak egiteko, bai eta askotariko kultur-, gizarte- eta aisialdi-emankizun antolatzeko ere.

Por todo ello, el Palacio Euskalduna sigue siendo un punto de referencia de primer orden para un gran número de actividades congresuales y de reunión así como para múltiples manifestaciones culturales, sociales y de ocio.

JARDUERA

ACTIVIDAD

2014ko ekitaldian, 450 bilera eta biltzar egin ziren jauregian eta 352 musika-emanaldi eta ikuskizun antolatu ziren.

En este  ejercicio se ha alcanzado la cifra de 450 reuniones y eventos congresuales y 352 representaciones musicales y espectáculos.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

## Biltzar eta bilera jarduerak

Biltzarren eta bileren kopurua honela banakatzen da:

## Actividad Congresual y de Reuniones

El número de congresos y reuniones se distribuye en:

| | |
|---|---|
| ❑ Biltzarrak eta antzekoak / Congresos y Asimilados | 34 |
| ❑ Batzar eta Asanblada Orokorrak /Juntas y Asambleas Generales | 15 |
| ❑ Enpresako Ospakizunak eta Konbentzioak /Convenciones y Actos de Empresa | 27 |
| ❑ Mintegiak eta Jardunaldiak /Seminarios y Jornadas | 285 |
| ❑ Gizarte Ekitaldiak /Actos Sociales | 29 |
| ❑ Ikuskizuna duten Gizarte Ekintzak /Actos Sociales con Espectáculo | 2 |
| ❑ Erakusketak/Exposiciones | 14 |
| ❑ Bestelakoak (Erakusketak, irrati eta telebista saioak, eta abar.) / Varios (Exposiciones, programas de radio y TV, etc..) | 44 |

Biltzar-kopuru handiena maiatzean (zazpi), apirilean eta urrian (sei) egin zen. Beste alde batetik, ekitaldi gehien gauzatu ziren hilabetea azaroa izan zen, hil horretan, batzarrei lotutako 69 ekitaldi burutu baitziren. Ildo beretik, maiatza eta urria ere nabarmentzeko hilak izan ziren.

1.000 partaidetik gorako 7 biltzar eta 750 partaidetik gorako beste 2 biltzar handi egin ziren jauregian. Horietan, ondokoak izan dira azpimarratzekoak: SEMERGEN 2014 Nazio Biltzarra, 4.000 partaidetik gorakoa, Euskadin inoiz gauzatu den biltzarrik handiena; Espainiako Oftalmologia Elkartearen 90. Biltzarra; El Sol 2014, Publizitate Komunikazioaren Jaialdi Iberoamerikarra; SEPAR 2014, Espainiako Neumologia eta Toraxeko Kirurgiaren Elkartearen 47. Biltzarra; Zuzendaritza-kideen III. Nazio Biltzarra; Berpiztearen Europako XII. Biltzarra 2014; Galdaketaren 71. Nazioarteko Biltzarra eta European Ecommerce Conference 2014, besteak beste.

Erakundeen batzar nagusiak, batik bat, martxotik ekainera egin ziren. Arlo horri dagokionez, ondoko batzarrak egin ziren aurreko ekitaldian Euskalduna jauregian: BBVAko eta Iberdrolako akziodunen batzar nagusiak, Eroskiko lan-bazkideen prestatze-batzarra eta Athletic Cluben ohiko eta ezokiko batzarrak.

Mayo, con siete, y abril y octubre, con seis, fueron los meses que registraron mayor número de congresos. Además, noviembre aglutinó la mayor actividad del año, con 69 eventos de reunión. También destacaron en este aspecto mayo y octubre.

Se han celebrado 7 grandes congresos de más de 1.000 asistentes y otros 2 de más de 750. Resultaron especialmente significativos el Congreso Nacional SEMERGEN 2014 que, con 4.000 asistentes, ha sido el más grande celebrado jamás en Euskadi; el 90 Congreso de la Sociedad Española de Oftalmología; el Festival Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria El Sol 2014; el 47 Congreso Nacional de la Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica SEPAR 2014; el III Congreso Nacional de Directivos; el XII Congreso Europeo de Resucitación 2014; el 71 Congreso Mundial de la Fundición y el European Ecommerce Conference 2014, entre otros.

Las Juntas y Asambleas se concentraron entre los meses de marzo y junio. El Palacio Euskalduna acogió, entre otras, las Juntas Generales de Accionistas del BBVA y de Iberdrola, la Junta Preparatoria de Socios de Trabajo de Eroski y las Asambleas Extraordinaria y Ordinaria del Athletic Club.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

Beste alde batetik, jauregian egin ziren, besteak beste, Kutxabankeko Zuzendarien Biltzarra 2014, Mercedes Benz Dealer Meeting Bilbao 2014, Bake Prozesua bultzatzeko Gizarte Foroa, Etorkizuneko Lantegiari buruzko Nazio Biltzarra, Basque Ecodesign Meeting 2014, Fun & Serious Games Jaialdia 2014, Industria eta Telekomunikazio Ingeniarien, Medikuen eta Odontologoen inbestidura-ekitaldia eta diploma-banaketa eta Bilbao Chess 2014.

Asimismo fue escenario, entre otros, de la Convención de Directivos Kutxabank 2014, del Mercedes Benz Dealer Meeting Bilbao 2014, del Foro Social para impulsar el Proceso de Paz, del Congreso Nacional la Fábrica del Futuro, del Basque Ecodesign Meeting 2014, del Fun & Serious Games Festival 2014, de los actos de investidura y entrega de diplomas de promociones de Ingenieros Industriales y de Telecomunicaciones, Médicos y Odontólogos y del Bilbao Chees 2014.

Beste alde batetik, hainbat alderdi politiko eta sindikatu-erakunderen batzar eta ekitaldi ugari egin dira Euskalduna jauregian.

También se han desarrollado en el Palacio Euskalduna numerosas reuniones y actos, de diferentes partidos políticos y organizaciones sindicales.

Azkenik, jakin-mina handia piztu zuten erakusketa batzuk antolatu ziren jauregian, hala nola, “Bizitza oso bateko jostailuak” eta “Terracotta Army – Xiango gerlariak”, Prestik 2014, Gazte Lanbidearen IV. Azoka, Garai guztietako Grabatu eta Paper gaineko Arteari buruzko Nazioarteko Jaialdia eta 5. Basque Country Food & Wine Exhibition.

Además se celebraron diversas exposiciones que despertaron gran interés público como “Juguetes de toda una vida” y “Terracotta Army – Guerreros de Xian”, la IV Feria de Empleo Juvenil Prestik 2014, el Festival Internacional de Grabado y Arte sobre papel de todos los tiempos y el 5º Basque Country Food & Wine Exhibition.

## Jarduera musikal eta artistikoa.

Beste alde batetik, musika-emankizunen eta ikuskizunen jarduerari dagokionez, 2014ko urtean, 352 ekitaldi egin ziren. Horietatik, 160 ikuskizun auditorium-ean egin ziren, 84 antzoki-aretoan, 16 Barria aretoan eta 92 jauregiko beste areto batzuetan.

2014an, **musika, kantu eta arte eszenikoetako pertsona ospetsu asko** aritu ziren Euskalduna jauregian. Horien artean, besteak beste, ondokoak aipa ditzakegu: Leo Nucci, Ainhoa Arteta, Asier Polo, Seo Jung Ann, Pablo Sainz-Villegas, Luciana D´Intino, Marcelo Giordani, François Proud, Carlos Álvarez, Francesco Meli, Arcado Volodos, Benjamín Grosvenor, Lorna Anderson, Enrique Ferrer, Roberto Arónica, Anthony Blake, Sergio Dalma, Estopa, Bunbury, Mónica Naranjo, Jhon Legend, Raphael, Les Luthiers, El Dúo Dinámico, Rocío Molina, Carolyn Carlson, Itziar Mendizabal, Jean Sebastian Colau, Luis Merlo edo Carlos Hipólito.

## Actividad Musical y Artística.

Por su parte, la actividad musical y de espectáculos ascendió en 2014 a un total de 352 representaciones. De ellas, 160 tuvieron lugar en el Auditórium, 84 en la Sala Teatro, 16 en la Sala Barria y 92 en otras Salas del Palacio.

A lo largo de 2014 han actuado en el Palacio Euskalduna numerosas figuras de la música, el canto o las artes escénicas entre las que cabe citar, por ejemplo, a Leo Nucci, Ainhoa Arteta, Asier Polo, Seo Jung Ann, Pablo Sainz-Villegas, Luciana D´Intino, Marcelo Giordani, François Proud, Carlos Álvarez, Francesco Meli, Arcado Volodos, Benjamín Grosvenor, Lorna Anderson, Enrique Ferrer, Roberto Arónica, Anthony Blake, Sergio Dalma, Estopa, Bunbury, Mónica Naranjo, Jhon Legend, Raphael, Les Luthiers el Dúo Dinámico, Rocío Molina, Carolyn Carlson, Itziar Mendizabal, Jean Sebastian Colau, Luis Merlo o Carlos Hipólito.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

Ondoko emankizunek ere arrakasta handia izan zuten: “La Nueva Antología de la Zarzuela”, Salvador Távoraren “Carmen” opera flamenkoa, “Euskaldunak eta dantza” ekitaldiaren X. Gala; “Peter Pan” Musikala, “Peppa Pig”, los títulos de la Temporada de Ópera de la OLBEren opera-denboraldiko emankizunak eta BOS nahiz EOS orkestren kontzertuak.

Cosecharon importantes éxitos “La Nueva Antología de la Zarzuela”, la Ópera Flamenca “Carmen” de Salvador Távora, la X Gala “Los vascos y la danza”; “Peter Pan” Musikala, “Peppa Pig”, los títulos de la Temporada de Ópera de la ABAO, o diferentes conciertos de la BOS y la OSE.

Euskalduna jauregiaren Aste Nagusia zikloak diru-bilketaren errekorra lortu zuen, 1.853.379 euro batu zuelarik, 2012an baino 313.256 euro gehiago bilduta. Ziklo horretan, jauregiko lau aretotan (auditoriuma, antzoki aretoa, A-3 aretoa eta Barria aretoa), 50.007 ikusle batu ziren.

El Ciclo Aste Nagusia del Euskalduna superó el récord de recaudación con 1.853.379 euros, superando en 313.256 el anterior récord de 2012. Congregó en cuatro salas del Palacio (Auditórium, Sala Teatro, Sala A-3 y Sala Barria) un total de 50.007 espectadores.

“*Los Miserables*” musikalak arrakasta handia izan zuen; guztira, 24.077 ikuslek gozatu zuten horretaz eta 1.230.330 euro batu ziren. Beste alde batetik, “*El crédito*” antzezlanak ere oso harrera ona izan zuen; guztira, 10.781 ikusle joan ziren horretara eta 271.339 euro batu ziren.

Logró un gran éxito el musical “*Los Miserables*” que tuvo un total de 24.077 espectadores y una recaudación de 1.230.330 euros. También triunfó la obra de teatro “*El créditos*”, con 10.781 espectadores y una recaudación de 271.339 euros.

Gabonetako programazioaren barruan eskaini ziren ikuskizunetan eta “Terracotta Army – Xiango gerlariak” izeneko erakusketan 45.829 ikuslek parte hartu zuten eta 853.438 euro batu ziren leihatilan. Aipatutako kopuruak marka berriak ditugu ziklo horretan.

Por otra parte, 45.829 espectadores, que dejaron en taquilla 853.438 euros, asistieron a los diferentes espectáculos y a la exposición “Terracotta Army – Guerreros de Xian” ofrecidos durante la programación navideña. Ambas cifras constituyen nuevos récords en este ciclo.

Saldutako sarreren guztizko kopurua, ikusleen kopurua (300.679) eta ekitaldian gauzatutako emankizunen kopurua aintzat hartuta, Euskalduna jauregiak ospe handia dauka Espainiako ikuskizun areto publikoen artean.

La venta total de entradas, unida a la cifra de espectadores (300.679) y al número de representaciones llevadas a cabo nos han llevado a una destacada posición entre los Auditorios Públicos españoles.

## Okupazio datuak

Okupazio-datuetan emanda, jauregian izandako jarduera honakoa izan da:

- Okupazio beteko egun-kopurua: 332
- Urteko okupazioaren ehunekoa (urteko 365 egunen gainekoa): % 91

## Datos de ocupación

Esta actividad traducida a datos de ocupación, arroja los siguientes datos:

- Días de ocupación neta 332.
- Porcentaje de ocupación anual (sobre 365 días): 91 %

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

## Parte-hartzaileen datuak

2014ko ekitaldian, 567.198 lagun etorri ziren Euskaldunara, jauregia zabaldu zenetik inoiz izan den kopururik handiena.

## Datos de asistencia

El número de asistentes estimado en el año 2014 es de 567.198 el más alto desde la inauguración.

## Datu ekonomikoak.

2014ko ekitaldian, sozietatearen guztizko sarrerak 7.410.939,36 eurokoak izan dira, honela banakatuta:

## Datos económicos.

En el ejercicio 2014 los ingresos totales de la Sociedad se han cifrado en 7.410.939,36 Euros, con el siguiente desglose:

| | Euros |
|---|---:|
| ❑ Ustiapenagatiko diru-sarrerak / Ingresos de Explotación | 6.609.469,75 |
| ❑ Finantza diru-sarrerak / Ingresos financieros | 242.264,13 |
| ❑ Kapital subentzioak, emaitzetara aldatuak / Subvenciones de Capital traspasadas a resultados | 559.205,48 |

Guztizko gastuen zenbatekoa 8.697.299,13 eurokoa izan zen, honela banakatuta:

El capítulo de gastos arroja un importe de 8.697.299,13 Euros, con el siguiente desglose:

| Concepto | Euros |
|---|---:|
| ❑ Langileriaren gastuak / Gastos de personal | 1.349.793,01 |
| ❑ Amortizaziorako zuzkidurak / Dotación a la amortización | 2.085.876,34 |
| ❑ Bestelako ustiapen gastuak /Otros gastos de explotación | 5.261.629,78 |

Atalotan adierazitako zenbatekoek 240.311,09 euroko *cash-flow* positiboa ondu zuten aurreko ekitaldian.

Estas partidas han dado lugar a un cash-flow positivo en el ejercicio de 240.311,09 Euros.

Ekitaldiko emaitza 1.286.359,77 euroko galera izan zen.

El resultado del ejercicio es de 1.286.359,77 Euros de pérdidas.

2014ko ekitaldian kapitalizatutako kostuen zenbatekoak ondokoak izan ziren:

El volumen de costes capitalizados en 2014 ha sido el siguiente:

**Kudeaketari buruzko txostena**
***Informe Gestión***



**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

| Kontzeptua / Concepto | Euro/Euros |
|---|---|
| Aparkalekuko ekipoak eta instalazioak / Equipos e instalaciones Parking | 187.101,28 |
| Euskalduna handitzeagatiko eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ)<br>Ampliación de Euskalduna Impuesto de construcciones (ICIO) | 122.268,28 |
| Aretoetako altzariak / Mobiliario salas | 59.861,24 |
| Instalazio elektrikoak / Instalaciones eléctricas | 53.680,71 |
| Telefonogunea / Centralita telefónica | 48.447,23 |
| Jauregiaren kanpoaldeko pantaila 7 Pantalla señalética exterior de Euskalduna | 24.075,75 |
| Erorketen aurkako ekipoen hornidura, instalazioa eta egiaztapena<br>Suministro, instalación, certificación de equipos anticaída | 19.181,61 |
| Ikus-entzunezko ekipoen berriztapena eta erosketa (DCN, monitoreak, mikrofonoak, erreproduzigailuak, nahasgailuak…)<br>Renovación y compra equipos audiovisuales(DCN, monitores, micrófonos, reproductores, mezcladores...) | 17.976,70 |
| Kudeaketako aplikazio informatikoak<br>Aplicaciones informáticas de gestión | 17.427,21 |
| Aulkien biltegia / Almacén para butacas | 13.517,08 |
| Jasomakinak / Maquinaria elevadora | 13.150,00 |
| Abiadura-aldagailuak agertoki nagusiko plataforman<br>Variadores de velocidad en plataforma de escenario | 12.601,02 |
| Barruko LED pantailen erosketa / Adquisición de pantallas Led interiores | 10.009,00 |
| Instalazioen egokitzapena Euskaldunako irisgarritasuna hobetzeko<br>Adecuación de las instalaciones para mejora de la accesibilidad de Euskalduna | 8.770,00 |
| Informazio-prozesuetako ekipoen berriztapena<br>Renovación de equipos para procesos de información | 4.077,89 |
| Beste inbertsio batzuk / Otras inversiones | 3.750,00 |
| Guztira / Total | 615.895,00 |

2014ko urtarrilaren 31n, sozietateak 21 langile zeuzkan.

La plantilla de la Sociedad a 31 de enero de 2014 asciende a 21 personas.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

## 2105eko Aurrerapena

2015eko ekitaldian ere biltzar handiak egingo dira Euskalduna jauregian. Horietan, ondokoak dira azpimarratzekoak: El Sol 2015, Publizitate Komunikazioaren Jaialdi Iberoamerikarra; Espainiako Pediatria Elkartearen 63. Biltzarra Bilbao 2015; SEGO Espainiako Ginekologia eta Obstektriziaren XXXIII. Nazio Biltzarra; ICOT 2015, International Conference on Thinking 2015; Euroglia Conference 2015 Conference on Glial Cell Function in Health and Disease; Neurozientziaren Nazioarteko Biltzarra, 12th Meeting of the Eau Robotic Urologie Section, Urologia Errobotizatut; SEC 2015, Espainiako Kardiologia Elkartearen Nazio Biltzarra; SECIB 2015, Espainiako Aho Kirurgiaren XIII. Biltzarra.

Aipatu behar da Kardiologiaren Nazio Biltzarra Espainiako estatuan 2015. urtean egingo diren zientzia- eta osasun-arloko biltzarrik garrantzitsuenetakoa izango dela.

Beste alde batetik, ICOT 2105 biltzarraren naziorteko ospea eta hedadura nabarmentzekoak dira. Biltzar horretan, pentsaera hezkuntzan, enpresa eta kirolean nola erabili jorratuko da.

Aurrekoez gain, entzute handiko eta parte-hartzaile ugariko beste bilera-ekitaldi batzuk egingo dira jauregian ekitaldi honetan: Manager Business Forum 2015; Amagandiko Edoskitzearen Espainiko VIII. Biltzarra; Fun & Serious Jaialdia; Sinesdunak eta Bizitza Publikoa XI. Jardunaldiak; edo 8th International Conference on Advanced Lithium Batteries for Automobile Applications (ABBA-8 2015).

2015eko ekitaldiko helburuak honakoak dira:
% 85eko gutxieneko okupazioa eta diru-laguntzarik ez baliatzea ustiapena gauzatzeko.

## Avance 2015

En 2015, el Palacio será sede de grandes e importantes eventos congresuales los que cabe destacar: El Festival El Sol Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria 2015, 63 Congreso de la Asociación Española de Pediatría Bilbao 2015, XXXIII Congreso Nacional de la Sociedad Española de Ginecología y Obstetricia SEGO, ICOT 2015. The International Congress on Thinking 2015, Euroglia Conference 2015 Conference on Glial Cell Function in Health and Disease Congreso Internacional de Neurociencia, 12th Meeting of the Eau Robotic Urologie Section Urología Robotizada, Congreso Nacional Sociedad Española de Cardiología SEC 2015, XIII Congreso de la Sociedad Española de Cirugía Bucal SECIB 2015

Hay que resaltar que el Congreso Nacional de Cardiología será una de las citas científico-sanitarias más importantes que tendrán lugar en 2015 en el Estado español.

Por otra parte, destaca el prestigio internacional y el nivel mundial de ICOT 2105: Congreso que tratará sobre la aplicación del pensamiento a la Educación, la Empresa, el Arte y el Deporte.

Además, tendrán lugar otros eventos de reunión de gran dimensión científica y nutrida presencia de asistentes: El Manager Business Forum 2015; el VIII Congreso Español de Lactancia Materna; el Fun & Serios Festival, la XI Jornadas Católicos y Vida Pública en el País Vasco o la 8th International Conference on Advanced Lithium Batteries for Automobile Applications (ABBA-8 2015)

Los objetivos para el año se sitúan en una ocupación mínima del 85% y la no utilización de subvenciones para la explotación.